



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2018ko azaroaren 5etik 9rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: ZERBITZUEN PMIa



Datuaren analisia


arkiten Euroguneko Zerbitzuen PMI indizea 53,7ko mailara heldu zen urrian, 53,3ko aurreikuspena baino pixka bat gorago. Nolanahi ere, indizeak behera egin zuen iraileko 54,7ko mailarekin deratuz, eta hazkunderik geldoena izan zuen 2017. urte hasieratik. Urrian egindako azterlanaren abera, Alemaniako eta Irlandako jardueraren hazkundera motelagoa izan zen, 3 hiletako eta 7 etako minimoekin, hurrenez hurren. Italiako jarduerak, bestetik, atzera egin zuen lehen aldiz 18ko maiatzetik. Frantziak eta Espainiak, bestalde, hazkunde azkarrago bat izan zuten, nahiz eta adarpen-erritmoak urte hasierako datuen oso azpitik egon.

Adierazlearen azalpena

anufaktura ez den ISM indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei iten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jarduera-maila neurtzeko balio du, ktore horretan egiten diren erosketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste ierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate terako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi ; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale. Zerbitzuen sektorea roguneko BPGd osoaren bi heren denez, zerbitzuen PMIa egoera ekonomikoaren adierazle barmen bat da.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ERRESUMA BATUA: BPGd



Datuaren analisisa


Erresuma Batuko ekonomiak % 0,6ko hazkundera izan zuen urteko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren hiru hilabeteetako BPGd-aren hedapen-erritmoa % 0,4koa izan baitzen. Ekonomia britainiarren hazkunderik handiena 2016ko azken hiruhilekotik, BPGd-a % 0,7 hazi zenean. Lazko epe berarekin, ekonomia britainiarra % 1,5 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gehiago.

Adierazlearen azalpena

Estadistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten hazkundera eta ekonomia neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Erresuma Batuk ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketak eginez lortzen da, eta hori bera jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen eremutik izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

IEB: MANUFATURENA EZ DEN ISMa



Datuaren analisia


Maren datuaren arabera, zerbitzuen sektoreko jardura baretu egin zen urrian, baina hazkunde ekonomiko egonkorren adierazgarri den maila batean mantentzea lortu zuen. Manufaktura ez den jardueraren ISM indizea (osasun, finantza, nekazaritza eta eraikuntza-sektoreak barne hartzen dituena) 60,3ra jaitsi zen aurreko hileko 61,6tik. Hala ere, aurreikuspenak (59) gainditzea lortu zen. Izan ere, Estatu Batuetako ekonomia erritmo osasungarri batean hedatu da azken labeteotan, kontsumitzaileen gastuak bultzatuta. Nolanahi ere, nolabaiteko uzkurdua baten antzua ere badaude, enpresen inbertsio eskasa, esate baterako.

Adierazlearen azalpena

Manufaktura ez den ISM indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek erabiltzen diren inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jardura-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erosketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Estatu Batuetako kontsumoaren KPIaren zati handi baten isla ere bada. Aurreko datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuritzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

XINA: ZERBITZUEN PMIa ETA BALANTZA KOMERTZIALA



Datuaren analisia

Zerbitzuen sektoreko PMIak azken urteko hazkunderik txikiena izan zuen urrian (50,8 vs 53,1 ilean). PMIaren arabera, eskari berrien bolumenak behera egin zuen, eta, horrenbestez, bultzada onomikoan izandako galera handiago izan zen.

rikiko balantza komertziala 233.630 milioi yuanekoa izan zen. Esportazioek urte arteko % 20,1 in zuten gora (espero zena, % 14,2; aurrekoa, % 17). AEBetara egindako bidalketak ere izugarri zi ziren, erosketen aurrerapen gisa uler daitekeena, datorren urtetik aurrera muga-zergak are ndiagoak izan daitezkeelako aurreikuspenaren ondorioz. Inportazioek, bestetik, urte arteko % ,3 egin zuten gora (espero zena, % 17,7; aurrekoa, % 17,4). Kasu horretan, Gobernuaren zgarrien politika eragina izaten ari da barne-kontsumoaren gainean.

Adierazlearen azalpena

Zerbitzuen PMIak hileroko erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek egiten zaien inkesta t du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jardura-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten en erosketen bidez.

Balantza komertzialaren saldoa esportazioen eta inportazioen arteko aldea da, hau da, herrialde tean ekoitzi eta kanpoan saltzen diren ondasunen eta zerbitzuen balioaren eta beste herrialde tean ekoitzi eta erosten direnen balioaren arteko aldea. Saldoa negatiboa denean defizit mertziala ematen dela esaten da, hau da, esportazioen balioa inportazioena baino txikiagoa nean; superabit komertziala, ordea, esportazioen balioak inportazioena gainditzen duenean raten da. Adierazle ekonomiko hori herrialde baten ordainketen balantzako osagai bat da.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
11/13	Alemania	Urte arteko KPIa	% 2.5
11/13	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4.0
11/13	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	65.0
11/13	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	-25.0
11/13	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
11/14	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	-% 0.3
11/14	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 9.2
11/14	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 5.8
11/14	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
11/14	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	- % 0,1
11/14	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 2,2
11/14	Espania	Urte arteko KPIa	% 2,3
11/14	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2.5
11/14	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	-% 0.4
11/14	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 1,7
11/14	Eurogunea	Urte arteko enplegua	--
11/14	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
11/14	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0.3
11/15	Eurogunea	Balantza komertziala SA	16.7b
11/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	19.0
11/15	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.6
11/15	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	215k
11/16	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 2,2
16/11	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0,2
16/11	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--

JRTSA:

ite positiboa AEBetan eta Europan, eta negatiboa Asian. Europan, Ibex 35 indizeak izan zituen igoerarik handienak. Inku europarrei egindako estres-testei begira, Ibex indizearen lau bankuek gainditu zuten proba. Gainera, izitegi Gorenak finantza-erakundeen alde egin zuen boteken zergaren auzian. Hala ere, Gobernuak legea aldatu egin zuen, aurrerantzean bankuek ordain dezaten erga. Asteon, AEBetako legealdi erdiko bozkek eta FEDen erak protagonismoa lapurtu zien tentsio komertzialen irrizketari, Brexitaren gaineko negoziazioen martxa onari a Italiako aurrekontuak bertan behera uzteko irrotaldearen babesari. Estatu Batuetako hauteskundeei gokienez, errepublikanoek Senatuko gehiengoa mantenduten, baina alderdi demokratik Kongresuaren kontrola lortu en. Merkatuaren ustez, banaketa horrek zerga-pizgarri txiagi, inflazio txikiagoa, eta, ondorioz, FEDek tasak mnditzeko aukera gutxiago ekarriko ditu. Bada, egoerariak harrera ona izan zuen burtsetan. Hala ere, interesen igoera berriak aurreratzeko orduan, Fed-ek bere azken eran erakutsi zuen irimotasunak burtsaren hazkundera agatu zuen, ekonomiaren moteltze handiago baten idurak bizi jarraitzen duelako oraindik. Enpresen emaitzei gira, AEBetako eta Europako konpainien datuen % 81 eta % 76 argitaratu ondoren, hurrenez hurren, irabazien mnditzea % 28koa izan da AEBetan (azken zortzi urtetako aximoak), eta % 11koa Europan.

RRENTA FINKOAK:

ala AEBetan nola Alemanian, inbertitzaileek epe luzeagoko r subiranoa erosteko hautua egin zuten. Bestalde, ropako herrialde periferikoen arrisku-primek gora egin iten, Italian batez ere (+7 op). Italiako PMIaren zkurduraren datuak eta Europako Batzordearen rreikuspen makroek (defizit aukera nahiko handiekin peez bestaldeko herrialderako) sostengua eman zien ugimenduari. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ren.

BISAK/LEHENGAIK:

ropako ziurgabetasun politikoak eta hazkunde apalagoak roan eragina izaten jarraitzen dute, eta asteen 1,13 dolarreko ailatik jaitsi zen lehen aldiz 2017ko ekainetik. Libera, bestalde, lartu egin zen euroaren aldean, Brexitaren inguruko akordio ten aukerak txikiak direla ezagutzera eman zen arren. hengaietan, petrolioaren prezioa barrileko 70 dolarreko ailatik jaitsi zen lehen aldiz zazpi hilabetetan. Izan ere, Irango trolio gordina inportatzen jarraitu ahal izateko, AEBek zortzi rrialderekin eginiko behin-behineko salbuespenek joan den telehenean Irani aplikaturiko zehapenak indarrean sartzearen agina txikitu zuten. Gainera, merkatuak handituz doan petrolio rdinaren mundu-mailako eskaintzan jarri zuen arreta osoa, pero baino azkarrago hazten ari dena.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
MSCI WORLD (Eur)	185,56	1,52	3,74
IBEX 35	9.134,80	1,58	-9,05
DJ EURO STOXX 50	3.229,49	0,47	-7,83
DJ STOXX 50	2.974,39	0,98	-6,40
FTSE	7.105,34	0,16	-7,58
S&P 500	2.781,01	2,13	4,02
Dow Jones	25.989,30	2,84	5,14
NASDAQ	7.406,90	0,68	7,29
NIKKEI 225	22.250,25	0,03	-2,26
MSCI GORAKORRAK (Eur)	337,70	-1,85	-10,88
MEXBOL	44.263,74	-2,60	-10,31
BOVESPA	85.641,21	-3,14	12,09
SHANGHAI	2.721,56	-2,90	-21,42
Errusia Rts Mosku	1.121,38	-1,18	-2,86

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,60	0,02	0,03
ESPAINIA 2 URTE	-0,14	-0,01	0,21
AEB 2 URTE	2,92	0,02	1,04
ALEMANIA 10 URTE	0,41	-0,02	-0,02
ESPAINIA 10 URTE	1,60	0,02	0,03
AEB 10 URTE	3,18	-0,03	0,78
ALEMANIA 30 URTE	1,04	-0,02	-0,22
ESPAINIA 30 URTE	2,72	0,02	-0,13
AEB 30 URTE	3,38	-0,07	0,64
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/23	69,63	-1,12	24,71
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/23	287,36	-2,70	54,93

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald. 2018
Dolarra / Euroa	1,13	-0,46	-5,57
Yena / Euroa	129,04	0,15	-4,58
Libera / Euroa	0,87	-0,52	-1,60

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald. 2018
Petrolio (Brendt)	68,73	-4,50	2,86
Urrea	1.209,85	-1,87	-7,15



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.